

ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 1988ko abenduaren 12an inskribaturiko eta A/1287/88 erregistro-zenbakia duen irabazteko asmorik gabeko Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutua (IAN-ANI) elkartearen, hemendik aurrerantzean Institutuaren edo elkartearen, estatu hauek ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta martxoaren 22ko 1/2002 lege organikoan, elkarteei buruzkoa, ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak eta gaurkotuak 2010eko otsailaren 26an egindako ohiz kanpoko Batzar Orokorrean.

Institutuak honako araubidea izango du: Elkarteen Legea, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza-batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango).

INSTITUTUAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Institutuaren xedeak honako hauek dira:

- Ingurumena ikertu eta ezagutu, bai alderdi puruan bai aplikatuan.
- Aurreko ezagupenak eta ikerketetan lortutako emaitzak zabaldu.
- Ondasun naturala babestu eta bere hartan gorde, ahal den neurrian horretarako ahalmena duten erakundeekin elkarlanean arituz baliabide naturalen zentzuzko erabilera ahalbidetzeko.

Xede horiek lortzeko antzeko helburuak dituzten elkarte edo erakunde publiko zein pribatuekin sustatu eta finkatuko dira harremanak. Elkarlanak gauzatu ahal izateko, horietan aritzen diren entitateen artean akordioak izenpetu behar dira aldeztu aurretik eta Zuzendaritza-batzordeak berretsi behar ditu.

Xede horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren: ikerlanak, ikastaroak, landa-irteerak, jardunaldiak, argitalpenak, kontserbazio-ekintzak.

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- b) Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta edukirik gabe guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- c) Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

Institutua herri onurakotzat aitortutako xede orokorretako elkarte da. Batez ere erakunde kultural-zientifikoa da eta irabazasmorik gabekoa.

INSTITUTUAREN EGOITZA

3. artikulua.- Institutu honen egoitza helbide honetan dago: Gasteizko Pedro Asua kalean, 2 zenbakian.

Institutuak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Institutu honek nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko ditu bere zereginak, Arabako Lurralde Historikoan atentzio berezia jarritz.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. artikulua.- Institutua iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala ohiz kanpoko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Institutuaren funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Institutuaren agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku dago:

- a) Bazkideen Batzar Orokorra da organo gorena.
- b) Zuzendaritza Batzordea da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak honako hauek dira:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarte desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da bilkura berezian, bere ekimenez edota bazkideen %33k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Institutua desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkurak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez zazpi egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen bi heren bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorren erabakiak gehiago soiluz hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiago kualifikatua beharko da (botozko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

- a) Institutua desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utz dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, Batzarren data jaso beharko du eta Batzarreko idazkariari eman beharko zaio bilera hasi baino lehen.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea gutxienez lau kidek eta gehienez zazpi osatua izango da. Gutxienez bi hilabete behin bildu beharko da eta elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrek hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek bi urterako izendatuko dira Batzordeak berriaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete behar dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutu hauetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea eta elkartean gutxienez urtebete eramatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Nagusiak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrek.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintealdia bukatzen denean.

- b) Dimititzen baldin badute.
 - c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoia dituztenean.
 - d) Estatutu hauetako 16. artikulua arabera, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
 - e) Hiltzen baldin badira.
- a) idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoa, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.
- b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoa, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarten Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Institutuaren eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Institutuak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ohiz kanpoko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarten inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g) Bazkide berriak elkarte onartzeaz erabakia hartu.
- h) Institutuaren xedei eta bestelako alderdiei hobeto erantzuteko beharrezkotzat jotzen diren batzordeak, lantaldeak, bazkide-taldeak, ordezkariak eta antzekoak sustatzea eta izendatzea.
- i) Batzar Orokorrak berriazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eksklusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki duen bakoitzean egingo dira, bere kabuz edo batzordekide batek hala eskatzen duenean. Bilkurako buru lehendakaria izango da eta, ez balego, idazkaria.

Bilera-deiak batzordekide guzti-guztiei zuzendutako banako idazkien bidez egiten dira; astebete lehenago egin behar da hori. Gai-zerrenda beti adieraziko da.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen

kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez, gero lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOKAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako burua izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- Institutuaren ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- Baliozko eran erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, gutxienez beste bi batzordekideen iritzia eskatu ondoren, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

IDAZKARIA

24. artikulua.- Elkarteko idazkaria ziurtatzeko ahalmena dauka eta batzar nagusian beteko ditu esleituta dituen eginkizunak, eta kide anitzeko gobernu-organismoaren bileretan ere bai. Zehazki, honako hauetaz arduratuko da:

- Elkarteari zuzendutako gutuneria bideratzea, lehendakariari edo diruzainari ez dagokien guztian.
- Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza-batzordearen bileren aktak idaztea eta era guztietako ziurtapenak luzatzea.
- Akta-liburuak eta Institutuaren funtzionamenduarekin zer ikusirik duten bestelako agiriak egunean eraman, artxiboratu eta zaintzea, kargu berrien izendapenei buruzko agiriak kasuan kasuko agintedunari iristaraziz eta bestelako betebeharrak betez.
- Bazkideen errolda eta liburua eraman, bertan altak eta bajak idatziz, diruzainari horien berri emanez.
- Lehendakariak bere funtzioak bete ditzan horrekin batera lan egitea eta, hori ez dagoenean, bera ordezkatzeko.
- Elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da.

- g) Oro har, Zuzendaritza-batzordeak edo Batzar Orokorrak berriaz bere eskuz izan duten beste edozer.

DIRUZAINA

25. artikulua.- Diruzaina ekonomia-baliabideen zaintzaz arduratuko da, eta, orobat, legean eta elkarteei aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako aurrekontu- eta kontabilitate-betebeharrak betetzeaz. Zehazki, honako hauetaz arduratuko da:

- Institutuaren fondoak kontrolatu eta tramitatzea.
- Kuotak eta elkartearen bestelako fondoak jasotzea, erakundeek eta beste edozeinek emandako diru-laguntzak barne.
- Lehendakariak luzatutako ordainketa-aginduak bideratzea.
- Zuzendaritza-batzordeak hala eskatzen duenean, horri elkartearen egoera ekonomikoari buruzko informazioa ematea.
- Ekitaldia bukatutakoan Batzar Orokorrean eskainiko den kontuen egoerari buruzko urteko txostena aurkeztea.
- Diruzaintzaren agiriak bideratzea; horiek lehendakariaren ontzat emana jaso beharko dute.
- Kontabilitatea, inbentarioa, kontuen egoerari buruzko txostenak eta aurreko funtzioak betetzeko beharrezkoa gerta daitekeen guztia gainbegiratzea.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

26. artikulua.- Elkartearen partaideak izan daitezke, bere helburuekin bat etorrikerik, hala eskatzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak, beti ere norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez daudela eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez dutela.

27. artikulua.- Institutuaren bazkideak arruntak, ohorezkoak, gazteak edo haurrak izan daitezke.

- Bazkide arrunta da adinez heldua den bazkidea, kasuan kasuko kuota ordaintzen duena.
- Ohorezko bazkidea da Zuzendaritza-batzordekideek gaian aitortzen zaion prestigioagatik proposatzen duten pertsona natural edo juridikoa.
- Bazkide gaztea da adinez heldu gabe den bazkidea, 14 urte baino gehiago izanik, elkartean sartzeko bere gaitasuna osatu behar duten pertsonen adostasuna –agiri bidez egiaztatua– behar duen elkartekidea; batzar nagusian hitza eta boto-eskubidea du, baina ezin du zuzendaritzako kargurik hartu.
- Bazkide haurra da 14 urtetik beherako pertsona, elkartean dituen eskubideak erabiltzea eta betebeharrak betetzea bere legezko ordezkariet dagokiena. Urteko kuota gutxitua ordaintzen du.

28. artikulua.- Elkartearen partaideak izan daitezke hala eskatzen duten eta Zuzendaritza-batzordeak onartzen dituen pertsona fisiko eta juridiko guztiak. Sartera eskabideren bat ez onartuz gero, Zuzendaritza-batzordeak eskatzaileari idatziz jakinaraziko dio; horrek hilabeteko epea izango du egokitzat jotzen duen guztia alegatzeko. Zuzendaritza-batzordeak irizpidea bere hartan gordeko balu, eskatzaileak gorako errekurtoa eginez Batzar Orokorrera jo ahal izango du; atzera bota ezin izango den erabakia emango du horrek.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiak honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- a) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- b) Elkarteko gobernu- eta ordezkari-organoen osakeraz, elkartearen kontu-egoeraz eta elkartearen jardueraz informazioa jasotzea.
- c) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- d) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- e) Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organotan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- f) Indarrean dauden legetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra erabiltzea.
- g) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- h) Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegia, ekipamendua eta abar), betiere arautegiak edota Zuzendaritza-batzordeak kasu bakoitzean finkatzen duenaren arabera.
- i) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- j) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organoei baliozki hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

31. artikulua.- Bazkide arrunten artean, partaide ikertzaile izendatzen da lantalde bakoitzaren markoan era aktiboan landa-, laborategi-, artxibategi- edo dibulgazio-lanetan parte hartzen duen laguna. Adinez helduak ez direnen kasuan gurasoek edo tutoreek idatzizko baimena eman behar dute. Oro har, partaide izateko, frogaepe batetik pasatu behar da, interesdunaren merezimenduen arabera egokitu daitekeena. Partaide ikertzailearen izaera ekintzarik burutu gabeko epe luze baten buruan, gehienetan urtebete baino gehiagoren buruan, galtzen da.

32. artikulua.- Partaide ikertzaileen eskubideak, Institutuaren bazkide arruntek dituzten komunen gainean, honako hauek dira:

- Beren lantaldeen ikerlanaren eta dibulgazioaren programen elaborazioan parte hartzea.
- Beren lanerako institutuan eskueran dagoen materiala lehentasunezko izaeraz erabiltzea, erabiltzeko arautegiak finkatzen duen moduan.
- Jardunaldietan eta bileretan Institutuaren ordezkari izatea, Zuzendaritza-batzordeari jakinarazi eta horrek ontzat eman ondoren.

33. artikulua.- Partaide ikertzaileen betebeharrak, Institutuaren bazkide arruntek dituzten komunen gainean, honako hauek dira:

- Bere lantaldearen funtzionamendu ona lortzeko era aktiboan lan egin eta berari egotzi zaizkion ekintzez eta bere gain borondatez hartu dituzten arduratzea.
- Elkartearen gastuei erantzutea, Institutuaren bidez lortutako edota bertan burututako lan ordainduetatik eratorritako baliabide ekonomikoak ekarriz, Zuzendaritza-batzordeak finkatzen dituen ehunekoetan.

34. artikulua.- Ohorezko bazkideak ez du inolako kuotarik ordainduko eta Institutuaren aldizkako argitalpenak dohainik jasotzeko eskubidea izango du. Batzar Orokorrean ahoz baina botoa eman gabe parte har dezake; Zuzendaritza-batzordeak egokitzen jotzen dituen beste edozein eskubide ere izango du.

LANTALDEEI BURUZ

35. artikulua.- Bazkideek Institutuaren baitan taldeetan biltzeko eta xede jakineko lan zientifikoa edo dibulgaziozkoa burutzeko sailak edo lantaldeak osatzeko ahalmen zabala dute. Lantalde horiek dira, hain zuzen ere, elkartearen bizkarrezurra. Beren ekintzen garapenari begira lantalde horiek burujabeak dira. Hala ere, talde horiek guztiek elkarri beharrezko bermea eta laguntza eman behar dizkiote, bai horien ekintza espezifikoiei begira bai ikerlan komun baten xedei begira. Edozein modutan ere, Zuzendaritza-batzordeak emandako arauekin bat etorritik jokatu dute.

36. artikulua.- Lantaldeak sortzen dira, hainbat bazkidek proposatuta, Zuzendaritza-batzordea jakinaren gainean dagoela eta bere aldeko iritzia emana duela, gainerako sailak entzun eta bideragarritasuna konprobatu ondoren. Zuzendaritza-batzordeak lantalde berrien sorrera bultzatzen dezake. Era berean, lantalde jakin bati bukaera eman diezaike, horren xedeak edo ibilbidea bere sorreran alegatutakoekin bat ez badatoz, Institutuaren berezko jokabide zientifiko-kulturaletik bereizten badira edo bere ekinaldietan praktikan etena suertatzen bada.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

37. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

- a) Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
- b) Bazkidea bere borondatez joatea.
- c) Ohartarazi arren, justifikatutako arrazoirik gabe urteko kuota ez ordaintzea.
- d) Zuzendaritza Batzordeak elkartetik bidaltzeko zigorra ezartzea, arrazoi honengatik: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozko eran hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

38. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsoa jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

39. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozko eran hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

40. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du parte hartuko espedienteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ohiz kanpoko batzar orokorrean errekurtsoa aurkez dezakeela azalduko da. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsoa ezazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

41. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

42. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

43. artikulua.- Elkartearen hasierako ondarea 0 eurokoa da.

44. artikulua.- Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Sarrera-kuotak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkartek, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

45. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ohiz kanpoko batzar orokorrean erabaki behar da.

46. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, zuzenduko du.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

47. artikulua.- Batzarrerako deia egitearekin batera, Estatutuetak aldaketen testua bazkideen esku jarriko da, horiek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra hasi aurretik.

Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan. Gero onartutako aldaketei buruzko informazioa bazkide guztiei iritsarazi behar die Zuzendaritza-batzordeak.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

48. artikulua.- Elkartearen arrazoi hauengatik desegingo da:

- Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ohiz kanpoko batzar orokorrean azaldu beharko da.
- Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
- Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
- Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
- Epai irmo batek elkartearen desegitea agintzen duelako.
- Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.


49. artikulua.- Desegite-erabaki hori baliozkoa izan dadin, bertan dauden botoen edo behar bezala ordezkaturik daudenen bi hereneko gehiengo beharrezkoa izango da. Elkartearen deseginez gero, erabakia hartu duen ohiz kanpoko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko hiru kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, Institutuaren xedeetatik hurbil den irabazi-asmorik gabeko elkarte bati eman beharko zaio, Batzar Orokorrak berak hartutako erabakiaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inola ere ez ditu Estatutuetakoa aginduak aldatuko.

<p>Estatutu hauek ikus-onesi dira. Euskal Autonomia Erkidegoa Elkartearen Errolda Nagusiazaren Erregelamendua onartzen duen aztarnaren 294. / 41/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako baldintzetan.</p> <p>GAZTAN, 2012ko...ren... (e/a)n.</p> <p>ERROLDARAKO ARDURADUNA</p>	<p>Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.</p> <p>En ...GAZTAN..., a 31 de ...AJO... de 2012.....</p> <p>ELLA ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p>
---	--



Handwritten signature

Large handwritten signature